

# MADALENAK

BIDASOA.HITZA.EUS

OARSOALDEA.HITZA.EUS

## ERRETERIA-ORERETA 2022

Argazkia: Imanol Saiz

**P**andemiak eragindako itzalaldi soziala bukatzen ari da apurka. Horren seinale garbienetako bat da herrietako jaiak berpiztu direla. Madalenak ostegunean hasiko dira, eta 2020an eta 2021ean eman gabeko besarkadek, festa giroaren berotasunean esan ezinik gelditu zirenek, eta herri baten nortasunaren zati handi baten partaide izatearen sentsazio galduek izango dute, aurtengoan bai, tartea.

Herriko eragileek mimoz eta arduraz prestatu dituzte herriko jaiak. Ohiko osagai den-denak daukate 2022ko Madalen Jaiek. Bi urteko lehorraldiak herritarrek festekiko duten jarreraren zein eragin izan duen ikusteko dago, baina ziur, berriz ere plazak eta kaleak berreskuratuko dituztela. Horretarako aukerak behintzat jarri dituzte mahairen gainean era batera edo bestera madalenetan ekitaldiak antolatzen dituzten eragileek.

Orotara, 110etik gora dira hilaren 25era arte herrian izango diren jarduerak. Denak espezial eta bakarrak. Denak zuentzat. X



**Lete**  
itzulpenak  
www.lete.net

administrazioa . publizitatea  
liburuak . enpresa

Tel.: 943 515 346 • lete@lete.net  
**www.lete.net**

*Ondo pasa* **rosmi** *Madalenak!*

**JAIETARAKO JANTZIAK:  
ZAPIAK, TXAPELAK, GERRIKOAK...**

Foru plaza, 21 . 943 511 887 . Erreteria

# 1.090 egun geroago, hemen dira madalenak

**Aurten bai, Madalen Jaiak iritsi dira. Osteguneko txupinazo hirukoitzarekin 110 ekitaldiko egitaraua biltzen duen festa aroa hasiko dute errenteriarrek eta herrira etorriko direnek.**

## URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Litekeena da aurtengo madalenak inoizko desiratuenak izatea. Ustekabeko izurriteak 2020koak eta 2021koak geldiarazi zituen, birusari aurre egiteko neurrien artean gizarte ekintza jendetsu oro egutegitik ezabatzea izan zelako. Egutegiari tiraka, kalkulu oso esanguratsua: 2019ko uztailaren 25a izan zen herriko festetaz goza-

tzeko errenteriarrek izan zuten azken eguna. Beraz, ostegunean 1.090 eguneko aroa beteko jai nagusirik gabe. Itxarotek, zaintzeak, pazientzia izateak, eta itxaropena mantentzeak merezi izan du, ordea. Asteartean aurkeztu zuen udalak jai egitaraua. Han, Aizpea Otaegi alkateak esan zuen aurtengoak «desio eta irrika bikoitzarekin» hartuko dituztela herritarrek. Hala izango da, baina ahal bada, neurrian.

110etik gora dira Jai Batzordeak aur-

tengorako adostu, landu eta proposatu dituen jarduerak. Horietatik gehien-gehienak kalean egitekoa dira, hau da, errenteriarrek eta bisitariak plazak, kalea eta herriko txokoak bere egingo dituzte berriz ere. Datu bat: 25 musika emanaldi daude bilduta programazioaren barruan. Osteguneko 19:00etatik hilaren 25eko 00:00ak arte 101 ordu daude zehazki. Ordu bakoitza, minutu bakoitza, gozamen ueña izango da.

Alkateak egitarauaren jendarteratze ekitaldian adierazi zuen madalenak hiru baliorekin estu lotuta daudela. Batetik, errenteriarren partaidetza aipatu zuen: «Herriko pertsona eta eragileen inplikaziorik gabe ez dago horrelako programazio anitza eta askotarikoa osatzerik». Ildo horretatik, festetan omenduak izango diren Ekintza BIBE eta Arrats elkarteetako kideen konpromisoa aintzatesi zuen udal agintariak: «Sarri ikusezin zaizkigun horien alde, finean, herri honen kohesioaren alde egiten duten lanari aitortza kolektiboa da izango duten omenaldia».

Azkenik, madalenak berdintasunean eta askatasunean gozatzeko jaiak direla adierazi du Otaegik, eta elkar zaintzeko deia egin du, «erasoek inolako tokirik izango ez duten jaiak nahi ditugu, eta hori guztion ardura da».

## JAI BATZORDEA

Madalenetako Jai Batzordearen lanagatik ez balitz, ez legoke madalenarik. Han biltzen dira jaien egitaraua era batera edo bestera aberasten duten eragileak. Maite Gartzia Kultura zinegotziak ba-



**KABALA**  
etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak

943 53 57 51 / 605 76 52 14  
Erdiko kalea 16. Errenteria. kabaladenda@gmail.com

ETXERAKO ZERBITZUA

AUTOZERBITZU GABERGAIA

ILEPAINDEGIA AURREKO HISTORIA



**orereta ikastola**  
AURRERA!

**MADALENAK  
HEMEN DIRA.  
ONDO PASA!**

www.oreretaikastola.eus

IKASTOLA ERRENTERIA





Irudian, Madalenetako Jai Batzordeko kideak jaien gaineko xehetasunak emateko egin zuten agerraldian. Aitor Odriozola

tzordearen funtzioa goresteaz gain, batzordekideen ekarpenari balioa eman dio, denentzako madalenak prestatzen dituztelako. «Programan jasota daude hilabete hauetan ilusio handiz auzolanean landutako ekintzak, eta pozik gaude horregatik. Izan ere, gure nahia baita jaiak herritik eta herriarentzat izatea», adierazi zuen Jai Batzordeak egindako agerraldian Gartzia.

Batzordekideek dei berezia egin diete herritarrei jaien hasierarako. Batetik, hilaeren 21ean egitekoa den Herriko Plazako herri bazkarian parte har dezatela eskatu diete. Bestetik, Herriko Plazako txupinazo nagusira joateko (haurrena

18:00ean da Koldo Mitxelena plazan, Holi Festa 19:00etan Gernika plazan), aurretik geratzeko eskatu dute: 18:15ean Foru plazan. Horrela, kalejira animatua egingo dute bertatik udaletxe pareraino hala nahi duten guztiek.

«Jai Batzordearen apustua da festak

guztion gozamerako izatea, eta denek jaietz libre gozatu ahal izatea. Ez dugulako ausartak izan behar, libreak baizik. Eraserik gabeko madalenak helburu dituzten neurriekin bat egiten dugu», azaldu dute festen antolaketa taldeko kideek. X

## LANDARE TABERNA



Maria Lezo Kalea, 3. 20100 Orereta - Tel.: 943 51 00 31

**ZURE SEAT ETA VOLSKWAGEN  
TALDEKO ZERBITZU OFIZIALA  
ERRENTERRIAN**

**Ongi etorri  
Ayerdi Motorrera**

Gure bezeroei zerbitzua ematen esperientzia handia dugu, eta Ayerdi Motor erreferentzia da autoen salmentan, banaketan, eta autoen konponketa zerbitzu ofizial bezala Lezon.



ESPEZIALISTAK



ESPEZIALISTAK



**Audi**  
ESPEZIALISTAK

- AUTO BERRI ETA AUKERAKOEN SALMENTA.
- MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA.
- TXAPA ETA MARGOKETA TAILERRA.
- ORDEZKATZE AUTOA.

**Gora Madalenak!**

**INSTALAKUNTZAK:** Jaizkibel hiribidea, 1 - LEZO. Tel. : 943344525  
ayerdimotor@ayerdimotor.com - WWW.ayerdimotor.com



# Arrats eta Ekintza BIBEri aitortza madalenetan

**Laguntza behar duten pertsonak artatzen dituzten elkarteak dira. Ziur azaldu dira omendu izateak euren jarduna aitortzen eta bistaratzen duela, eta pozik daude errekonozimenduekin.**

MIKEL DEL VAL

**B**i urteko etenaldi derrigortuaren ondoren, madalenak gainean dira, eta indartsu datoz. Soilik astebete geratzen da herriko jaiek txupinazoarekin eztanda egiteko, eta ohikoa den bezala, madalenetako omenduek izango dute txupinazoa jaurtitzeko ohorea. Aurten laguntza behar duten pertsonak artatzen dituzten

bi elkarte omenduko dituzte, herri kohezioa eraikitzen laguntzen dutenak: Arrats eta Ekintza BIBE. Urte asko igaro dira bi elkarteek euren ibilbidea hasi zutenetik, eta omendu izateak ibilbide horiei aitortza egitea dakarrela azaldu dute Arratseko Jose Mari Larrañagak eta Ekintza BIBEko Jose Antonio Barcenillak.

Arratsek 25 urte daramatza lanean. Larrañagak aipatu du proiektuaren has-tapenean kartzelan zegoen jendea laguntzen hasi zirela, eta bide horretatik abiatuta, kale gorrian dagoen jendea artatzen hasi zirela, «pertsona horiek baitira askotan kartzelan bukatzen dutenak». Arratsek lan sakona egiten du bazterketa eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonen babesa eta sostengua emateko, eta argi dute euren egitekoa: «Gure helburua da egoera txarrean

dagoen jendeak norbait alboan izatea; ez bakarrik gizarteratzen laguntzeko, baizik eta haien ondoan egoteko».

Ekintza BIBE, berriz, 1994an abiatutako proiektu bati jarraipena eman zion elkarte da. 28 urte dira herrian gogor lanean daudela. «Gehienbat ludopatía eta bestelako mendekotasun psikologikoak dituzten pertsonen errehabilitazioa tratatzen lan egiten dugu», baietsi du Barcenillak. Astelehenetik ostegunera bideratzen dute euren jarduna, arratsaldetan, Errenteriako Udalak Alabergan utzi zien lokal batean. Barcenilla argi mintzo da euren egitekoaz: «Bizitzan nahastu diren pertsonen aukera bat ematen saiatzen gara, jokorik gabeko bizitza berri bat izan dezaten. Horrez gain, erakutsi nahi dugu bizi daitekeela guk eta gure familiek sufritu duguna jasan gabe».

## ELKARTEAK, OSO POZIK

Txupinazioa botatzeko astebete geratzen denean, elkarteak unea iristeko «irrikan» daude. Arratseko Jose Mari Larrañagak onartu du «poz handia» izan dela elkartearentzat omendu izatearen errekonozimendua jasotzea, are gehiago aitortza nola etorri den ikusita: «Guk lagundutako Errenteriako jendea izan da gure ibilbidea aitortu nahi izan duena, eta oso pozik gaude horrekin. Gure lanean askotan gauzak latzak dira, eta ikusten duzunean jendea aurrera doala, bere bizitza egiten ari dela eta zutaz oroitzen dela, poz handia ematen du».

Ekintza BIBEko Jose Antonio Barcenilla ildo beretik mintzatu da, eta aitort-

CASAMAYOR  
JANTZIGINTZAK  
1964

GORA MADALENAK!!

Irun kalea 6, Errenteria-Orereta  
Tel: 943 51 31 46

Oiartzo  
etorkizunerako bidelagun

IKASTOLA  
EREDUA

Gora Madalenak!  
Eta biba zuek,  
gazteak!

www.oiartzoikastola.eus





Aizpea Otaegi alkatea eta Eñaut Gracia Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia, Arrats eta Ekintza BIBEko ordezkariekin udaletxean. HITZA

tu du omendu izatea «sorpresa atsegin» bat izan dela eta «oso pozik» daudela: «Urte asko daramatzagu Erreterian lanean, eta ilusio handia egin digu gutaz oroitu izanak. Errekonozimendu honek gure jarduna bistaratzen lagunduko du, eta garrantzitsua da guretzako jendeak jakitea herrian sufritzen duen jendea laguntzeko elkarte bat dagoela, eta hemen gaudela behar duenari laguntza emateko».

Horrez gain, Barcenillak nabarmendu du artatzen dituzten pertsona asko erreteriarrek direla, eta egoera «ilusio handiarekin» bizitzen ari direla. Gainera, Ekintza BIBEko kideak zehaztu du

### **Bi elkarteek urte asko daramate herrian lanean, komunitatearen kohesioa eta integrazioa ardatz**

«garrantzitsua» dela jakitea «mundu guztiak baloratzen» duela egiten ari diren lana: «Denek ulertu dute omenduak izateko arrazoiak genituela, eta hori guretzat oso garrantzitsua da. Egiten dugun lanak balio duela, eta aitortua dela jakitea izugarria da guretzat». ✕

Fauna y Flora  
HANDCRAFTED JEWELRY INSPIRED BY NATURE

HOFF

carhartt

Loreak Mendian NÜMPH

K A L I M A

emakume eta gizonentzako arropa eta osagarriak

Biteri 25. Erretereria-Orereta. Tel.: 943510372

Goieko

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK

Ongi pasa Madalenetan

*Irunen eta Beran*

*aurkituko gaituzu*

943 63 45 36

[www.goieko.com](http://www.goieko.com)



## JAI HERRIKOIAK

# Herri inplikazioa bilatzen duen jai ereduaren bila

**OaingozHau mugimenduaren bosgarren urtea eta hirugarren madalenak izango dira aurtengoak. Hasieratik hausnarketan dihardute, herritik sortuko den jai erdua eraiki nahian.**

**ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN**

**O**aingozHau jai herrikoien aldeko mugimendua da. 2018. urtean jaio zen, ez zegoelako konforme ordura arteko jaien ereduarekin. Egun ere martxan jarraitzen duen Txosna Batzordea arduratzen da Linoko txosnaguneko jarduerak antolatzeaz, baina herri mugimenduaren falta nabaritu zuten. Hori eraikitzaera joan

ziren, eta OaingozHau sortu zuten, aniztasunean oinarritutako festen alde, feministak, euskaldunk, ez homofoboak eta ez arrazistak izango direnak. Taldearen izenak orain arte dagoenari egiten dio erreferentzia: hau da dagoena, eta zerbait etorriko da.

Urtzi Lujanbio mugimenduaren kidea da. Haien helburuak lortzeko «ahalik eta jende gehien lanean jartzen» saiatu direla adierazi du, «jaiak herritik sortzeko eta herrirako». Bi urtez madalenak egin



Madalen kalean, 2019ko Kuadrillen Eguneko poteoan. Inoizko jendetsuena izan zen. U.Etxebeste

ez badira ere, ez dira geldirik egon. Iaz, Makarenak egin zituzten; 2020an Dj Bull eta Dj Txankleta online aritu ziren saioa egiten, urte hartan egin ezin izan zen Kuadrillen Egunaren harira. Urte berean balkoiak atontzeko deia egin zuten aldi berean. Datozen festei begira kroketa eta falafel tailerrak egin dituzte.

### HELBURUAK BETE BIDEAN

Aurtengoan ere bi gunetan egingo dute jarduna OaingozHaukoek, hain zuzen, Panier eta Lino gunetan. Jardueretan emakumeen presentzia bermatzen ahalgindu direla azaldu du Lujanbiok: guztira 24 jarduera antolatu dituzte, eta horietan izango diren musika taldeetako (Iratzar erromeria, Txamukos Maria-txiak, Grises taldea eta Dj Txankleta) bost emakume igoko dira oholtzara; aldi berean, Irantzu Varelak bakarrikzeta es-

# Beerlagun

[www.oarsoak.com](http://www.oarsoak.com)

UGALDETZO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN  
TEL. 943 49 01 62. [oarsoak@oarsoak.com](mailto:oarsoak@oarsoak.com)



**GORA  
MADALENAK!**

# JAKIN S.L.

[www.jakinservicios.com](http://www.jakinservicios.com)

AHOLKULARITZA  
ASEGURUAK  
ERA GUZTIETAKO  
GESTIOAK

Morrongilleta 11-13. 270 Posta kutxa . Errenteria. Tel.: 943 51 96 88 - 943 52 75 32. Faxe: 943 51 60 04



kainiko du. Oro har, egitaraua batez ere musika ikuskizunez osatu dutela adierazi du antolatzaileak, baina Irrien Lagunen eskutik hilaren 22an haurrentzako elkartasun jantokia ere egongo dela gogorazi nahi izan du.

Panierreko jantokian ere bertako ekoizleei egin diete txokoa. Barrako nahiz sukaldeko jakiak bertakoak eta ekologikoak izaten saiatu direla ere esan

du Lujanbiok. «Edaria osotasunean ez dugu lortu bertakoa izatea, baina garga-gardoa, esaterako, artisaua da eta Panier gunean topa daiteke».

Dirua jasotzea ez dela asmoa argi utzi nahi izan dute. Haien izatea «herri mugimendua indartzea» dela defendatuz, madalenetan jasotako dirua hurrengo urteko festetan inbertituko dutela ziur adieraziz. Lujanbioren arabera, kontsumoaren erudian oinarritzen da egungo jai erdua, eta horri aurre egiteko egun osoko egitarauak eskaintzeko apustua egin dute jaietako egun guztietan zehar.

#### PEDAGOGIA BEHARRA

Kuadrillen Eguna hilaren 23an egingo dute, baina bazkaririk gabe. Erabaki horren berri duela aste batzuk eman zuten mugimenduko kideek. Ez zen erraza izan erabakiari eustea. Iniziatiba hori egiteak antolatzaileak «kontsumitzen» zituela ohartu ziren, eta hori bazkaria egiteari uzteko arrazoi indartsua ez balitz, jarrera matxistak eta euskararekiko erasoak ere

izan zirela salatu dute antolatzaileek. «Auzolanean eraikitako espazio aske, libre, feminista, ez arrazista, ez homofobia eta euskalduna nahi genuen Kuadrillen Egunean ere. Ez dugu %100ean lortu».

Horrez gain, hasiera batean bazkari horretan 200 pertsona elkartetik, 1.900 pertsona biltzera pasa ziren, baina antolakuntza lanetan gorakada hori bermatu gabe. Jai herrikoiak izateko pedagogia lana egin behar dutela ohartu ziren. «Helburua baldin bada jai herrikoiak antolatzea eta ez egun bateko kontsumoari begirako bazkari eta poteo bat, ikusten dugu pedagogia egin behar dugula jendea batzeko ditugun lanetara. Orduan antolatuko dugu kuadrillen arteko bazkaria». Bitartean, era sinbolikotan ospatuko dute eguna jada saldu dituden kamisetak jantzita, eta arratsean poteoarekin kaleak hartuko dituzte.

Gainera, mugimenduaren gunetean txandak egiteko izena eman daiteke oraindik, Sindikato tabernan. ✕

# Albistur

Mantentze eta berritze-lanak

**ALBISTUR ERAIKUNTZAK**

*Proiektu eta berrikuntza orokorrak · Arreta pertsonalizatua*

**BULEGOAK: Biteri kalea 3, behea . SUKALDEEN ESPOSIZIOA: Biteri kalea 2, behea**  
943 52 78 01 - 665 727 764 - [www.albistur.es](http://www.albistur.es)

**Gora Madalenak!!**





[www.koldomitxelenaikastetxea.com](http://www.koldomitxelenaikastetxea.com)

# KOLDO MITXELENA

Herri Ikastetxea

Fernandez de Landa z/g. Erreterria-Orereta.  
Tel.: 943 51 43 72 - 012905aa@hezuntza.net

**Ongi pasa Madalenak!**



# KARTELA

## «Ilusio handia egiten dit nire herriko jaiak aurkeztu ahal izatea»

**ANGEL BLANCO EGOSKOZABAL**  
JAIETAKO KARTELAREN EGILEA

‘Zazpitan’ kartelarekin irabazi du madalenetako kartel lehiaketa, eta herrikoa izanik, ilusio berezia egin dio saria eskuratzea.

**MIKEL DEL VAL**

**Zer suposatzen du zuretzako zure kartelak madalenak iragartzeak?**

Txapelketa asko irabazi ditut hemendik kanpo, baina ilusio berezia egiten didana herrikoa da. Ikasten ari nintzela, madalenetakoa izan zen irabazi nuen lehen lehiaketa, eta ilusio handia egin zidan.

Horrez gain, madalenak intentsitate handiarekin bizitzen ditut, eta ilusio handia egiten dit nire herriko jaiak aurkeztu ahal izatea.

**Nondik datorkizu ‘Zazpitan’ kartela sortzeko ideia?**

Egiten ditudan karteletan estilo ezberdinak jorratzen saiatzen naiz, eta aurten letrekin jolasteko gogoia nuen. Horren harira, letrek garrantzia handia dute kartelean, eta letra horiek madalenetako zeinu eta ideia esanguratsuekin irudikatu ditut. Esaterako, udaletxeko fatxada irudikatu dut txupinazoko momentuan, eta erabili ditudan koloreek Xanti eta Maialenekin dute zerikusia.

**Zein da kartelaren esanahia?**

Letra batek udaletxeko arkupea sinbolizatzen du, balkoia eta suziria ere bertan daude, eta dena Xanti eta Maialenen koloreekin. Ez nuen dena esplizitua izatea nahi, baina argi nuen jendeak madalene-



M. Del Val

tako elementuekin, txupinazoarekin eta herriarekin lotzea nahi nuela.

**Sari ugari ari zara lortzen azken urteetan. Ohitzen ari zara...**

Madalenetako lehiaketa hamarretan irabazi dut. Kartelak egitearena nire lanaren zati bat da, baina egunerokoan oso gutxitan murgiltzen naiz gai horretan. Niretzako zaletasun bat ere bada, eta ikasten nuenetik beti izan dut gogoia kartelak sortzeko. Urtean lauzpabost egiten ditut. Hiriburuei dagokienez, Bilbokoa da zintzilik dudana bakarra, Gasteizkoa, Donostiakoa eta Iruñekoa irabazi ditut dagoeneko; baina, dudarik gabe, herrikoa izanik, niretzat madalenetakoa da denetan garrantzitsuenak. X

**Gora Madalenak!**  
**PINTXOAK - RAZIOAK - OGITARTEKOAK**  
Gamon Zumardia, 12 Erreterria  
943 55 86 25

**MAITEXA**  
**TABAKOAK-OPARIAK**  
*Gora Madalenak!*

Bizente Elizegi, 3 . Erreterria . 943 51 21 10

**IES Koldo Mitxelena BHI**  
Erreterria

**50** urte  
Koldo Mitxelena BHIk  
festa alaiak  
opa dizkizue!



# Haurren ahotsa ere jaietan entzun dadin

Aurten ere, Madalen Jaiek haurrei zuzendutako egitaraua izango dute. 2015. urtetik, gainera, haurrek prestatzen dute egitaraua, «bidelagun» batzuen laguntzarekin. Jaietan sartzen lehenak izango dira.

**AITOR ODRIOZOLA ZUBILLAGA**

Nora Barroso Moreno eta Naroa Otamendi Diaz dira haurren bidelagun horietako bi, eta argi dute zein izan zen Haurren Jai Batzordea sortzearen abiapuntua: «Haurrek hitza ematea eskatzen ziguten». Orduetik hona, hainbat ekintza antolatuta dituzte: ferietara etortzen diren familien haurrekin elkartu, abesti bat, dantza bat eta, noski, txupinazoa. Urtez urte, txupinazoa «eraikitzen» joan dira, prozesuan zehar atera diren gauzak txertatzen joan direlako. Haurrek hasiko dituzte madalenak, osteguneko 18:15ean, Mila Koloreko Txupinazoarekin.

Batzordekideek aitortu dute «beti» hartzen dutela sorpresa haurren proposamenekin, eta euren mugak «guztiz



Aurten ere Mila Koloreko Txupinazoa jasoko du Koldo Mitxelena plazak. Ikerne Zarate

apurtu» izan dituztela: «Bat-batekotasun horretan helduok bizitzen jakin behar dugu. Hori da, azken finean, beraiei ahotsa ematea». Jartzen dieten baldintza bakarra «egingarria izatea» da.

Hortik sortu zen, esaterako, Batuburrunba: «Zarata egitea eskatzen ziguten, entzunak izatea. Orduan, bururatu zitzaigun umek etxetik sortutako instrumentuak ekartzea, eta ZoZongorekin batera txupinazoarekin aurretik 45 minutuko kalejira egitea».

Haurren txupinazoa 18:00etan izango da, Koldo Mitxelena plazan. Batuburrunba, berriz, 17:15ean irtengo da Zumarditik. Horrez gain, apar festa, esku-

lan tailerrak eta antzerki bat ere antolatu dituzte madalenetako beste egun batzuetarako.

Egingarritasunaren muga horretan, baina, ez zaizkie etorkizunerako ideiak falta: «Beraien bazkaria nahi dute, baina oraindik ez dugu antolatzea lortu». Horrez gain, buruhandi eta erraldoi tailerra ere eskatu dutela aipatu dute batzordekideek, baina egitarauan txertatzea ezinezkoa zenez, urtean zehar egingo dute.

Herritarrei gonbita luzatu diete Haurren Jai Batzordeko kideek: «Haurrak etorkizuna dira, eta merezi du beraiek entzutea. Denok disfrutatzeke tokia dago». X



SAGASTI  
ELIZONDO

**Esther Sagasti Orodea  
Ana Elizondo Iriarte**

Barne Diseinua

*jaiak disfrutatu!!!*

Santxoenea 31. Erreteria. 679 70 39 44 - 605 76 53 16  
[www.sagastielizondodecoracion.com](http://www.sagastielizondodecoracion.com)



Aiton-Etxe

EGUNEKO ZENTROA

DIPUTAZIOAREKIN HITZARTUTA  
PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - [www.aitonetxe.com](http://www.aitonetxe.com)



2019an egin zen azken pregoia Niko Etxartekin. Imanol Saiz

## Muguruza eta txistulariak, hibridaziorako prest

Klasiko bilakatu da dagoeneko Madalen Aurreko Txistularien Kontzertua. Fermin Muguruza izango da aurtengo gonbidatua, eta irundarraren ibilbide oparoa errepasatu eta omenduko dute hilaren 20an, Zumardian.

**ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN**

Kortatu taldeak 1984ko uztailearen 19an egin zuen bere lehen agerraldia, urte hartako Errenteria-Oreretako Madalen Jaiei atarikoetan, goizaldeko 06:30ean. Programaz kanpo eta sorpresaz, Patxi-

kuko kanpan RIP eta Regimen taldeekin partekatu zuen oholtza. Muguruzarren taldeak lau urteko ibilbide bizia izan zuen harrezkero, eta 1988. urtean banatzea erabaki bazuten ere, ez zen izan gel-dirik egoteko, Negu Gorriak eratu baitzuten 1990an. Arrakastaz arrakasta, iraungitze data izan zuen talde horrek ere, eta jarraian, Fermin Muguruzak Dut taldearekin *Ireki ateak* diskoa kaleratu zuten. Ondoren, Muguruzak musikan ez ezik zineman ere bide luzea egiten aritu da.

Madalen Jaiak berriz ere bueltan dira. Hilaren 20an, XV. Madalen Aurreko Txistulari Kontzertua egingo dute Zumardian, 20:00etan, gonbidatua Fermin Muguruza izango delarik. Urtero Euskal Herrian musikan ibilbide oparoa duen musikariren bat gonbidatzen du Udal Txistulari Taldeak emanaldi berezi horretara —2019koa Niko Etxart izan zen— eta txistuaren doinueta eginda ez dauden artista gonbidatuen abestiak egokitu eta plazaratzen dituzte. Xabier Vesga Elizalde Udal Txistulari Taldeko zuzendariak adierazi du Muguruzaren ibilbidea markatu duten abestiak aukeratu dituztela emanaldirako. Egokitza-pen horiekin lan handia izan dutela nabarmendu du.

Kontzertu berezia izango dela ziur da Vesga. Oholtza partekatuko dute Euskal Herriko 50 txistularik, Zaria Koru Abesbatzak, eta metal boskote batek. Elkartze hori Euskal Herriko Txistularien Elkarteak egin duela posible adierazi du Vesgak, eta laguntzaile izan dituzten denei eskerrak eman dizkie. X

**Limpiezas Joxean S.L.**

**Ongi pasa jaiak!**

Egia kalea 19 behea, galerietako 1 lokala. Donostia. Tel.: 943 29 77 77  
[info@limpiezasjoxean.net](mailto:info@limpiezasjoxean.net) - [www.limpiezasjoxean.com](http://www.limpiezasjoxean.com)

- AHOLKULARITZA FISKAL ETA LABORALA  
 - TRAFIKOKO AGIRIEN KUDEAKETA  
 - AUTONOMOAK - ESKRITURAK

**SALSAMENDI**

[www.gestoriasalsamendi.com](http://www.gestoriasalsamendi.com) GESTORIA

Maria Lezo, 5 . Errenteria. Tel.: 943 52 43 02

**zumardi**

**ONGI PASA!**

**kioskoa**

Egunkariak • Aldizkariak

J.I. Gamon Zumardia. Errenteria - Orereta



ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

## Nigeriako Artisten Elkarteko kide zarete. Zertarako sortu zenuten?

**IYAYI EVELY:** Erreterian dugu elkarte, baina kideak Euskal Herri osokoak dira. Abeslariak, komediantek, zineman dabilzanak... denetik dago elkartean. Ikusi genuen talentu handia geneukala kalean eta ezin zutela ezer egin barruan zutenarekin, eta horregatik sortu dugu elkarte bat, zer egin dezaketen erakusteko. Madalenetan bi jaialdi eskainiko ditugu, bat hilaren 23an eta bestea 24an. Lehenengo Gernika plazan da, 22:00etan; bigarrena, berriz, hilaren 24an Diputazio plazan 20:00etan. Euskal Herriko hainbat lekutako artista asko etorriko dira, eta gure elkarteko artistak dira denak.

## Zein zailtasun dituzue kalean zuen artea zabaltzeko?

**I.E:** Zailtasun handiak daude. Adibidez, oso zaila da azoketan parte hartzea, batzuek arazo ekonomikoak dituztelako edota dokumentazio arazoak dituztelako. Talentua daukate eta hori erakutsi dezakete elkarteari esker. Izan ere, bi pisu kentzen dizkie elkarteak: dokumentazioaren aferak alde batetik, elkarteko kide bazara elkarte arduratzen delako horretaz; eta bestetik, diruari lotutako gaiak kentzen dizkiegu gainetik.

## Zuen elkartean orotariko artistak daukela esan duzue, eta bi jaialdi egingo dituzuela madalenetan. Zein izaerako jaialdiak izango dira?

**I.E:** Erreteria gure kulturarekin lotu nahi dugu. Aldi berean, gure kultura erakutsi nahi dugu. Hilaren 24an dantza ni-



Evely 'Ike jombo' eta Iaoui 'King Jasper'. A. Aranburu

## «Erreteria gure kulturarekin lotu nahi dugu»

### IYAYI EVELY ETA POGBE IAUI NIGERIAKO ARTISTEN ELKARTEKO PRESIDENTEA ETA ABESLARIA

geriarra izango da eta Nigeriako arropa tradizionalaz jantziko dira. Batez ere musikak izango du protagonismoa bi egunetan, eta gure herrialdean egin ohi

dugunari jarraituz, afrikar janaria ere jarriko dugu. Bi egunetako kontzertuetan ez dira musikari berberak izango. Lehenengo eguneko zuzeneko kontzertua izango da, eta bigarreneko ere, baina DJ batekin.

### Aurreratu al daiteke nortzuk igoko diren oholtzara?

**POGBE IAUI:** Abestuko duenetako bat ni neu izango naiz, edo hobeto esanda, *King Jasper*. Iyayik ekoitzi duen single bat aurkeztuko dut.

**I.E:** Blessing Osadolor ere etorriko da Tolosatik, eta bere single berria aurkeztuko du hilaren 23an. Nigeriako artista ezagunen bat ere etorriko da akaso. X

**gráficas**  
**diana**  
**inprimategia**

**TAILERRA ETA BULEGOA**  
Txirrita-Maleo, 5-E  
Tel.: 943344259

**BULEGOA**  
Alaberga 18 - Tel.: 943511889  
20100 ERRENTERIA

- Haur eta helduentzat  
Terapia Estrategiko Laburra
- Banakako, bikote eta familia terapia

**JAKOBE  
PSIKOTERAPIA**  
620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez  
Psikologoa GZ 1579  
Xenpelar kalea 6, solairuartera,  
5. bulegoa. Erreteria  
[www.jakobepsikoterapia.com](http://www.jakobepsikoterapia.com)

ARRATZUA

laberna

Ondo pasa  
madalenetan!

Gamon Zumardia • Tel.: 943 522 862 • ORERETA



# PROPOSAMENAK

Ikerne Zarate



## TXUPINAZOAK

**Hilaren 21ean.** Hiru txupinazo izango dituzte aurtengo madalenek: 18:00etan, haurrena Koldo Mitxelena plazan; 19:00etan Holi Festa Gernika plazan; eta 19:00etan, txupinazo nagusia Herriko Plazan. Denetan izango da *Zentenarioa* pasodoblea.



**EGITARAU  
OSOA  
HEMEN**

labur.eus.oarsoagenda

Ikerne Zarate



## HERRI BAZKARIA

**Hilaren 21ean, 14:00etan, Herriko Plazan.** Jai Batzordeak azken madalenetako usadioari eutsiko dio, eta jaiak hasten diren egunean herri bazkaria egingo dute Herriko Plazan. Txartelak Reyna eta Xera tabernetan daude salgai. Menu beganoa eska daiteke.

Urko Etxebeste



## HERRI KIROLAK

**Hilaren 22an, 12:00etan, Evaristo Bouza plazan.** Gabierrotan egingo dituzte aurtengo herri kirolak. Aizkolariak: Laiene Pikabea, Nere Arruti, Iker Vicen-te eta Mikel Larrañaga. Harri jasotzaileak: Udane Ostolaza, Aroa Sanchez, Jokin Eizmendi eta Imanol Royo.

IndioRock



## INDIOROCK

**Hilaren 22an.** 18:00etan hasita, eta orduero, Indiorock kaleko musika jaialdiaren barruko kontzertuak egingo dituzte tarteka Panier gunean, Linon, Foru plazan, Gailur tabernan edo Leku Zaharren parean. Orotara zortzi emanaldi izango dira, beste hainbeste talderekin.



**la coquine**  
La coquine deco  
*Dekorazioa eta opari bereziak*

**Ongi pasa Madalenetan!**

Foruen plaza 20, Erreteria • 943 905 774 • 610325416



*zatoz gure denda ezagutzera!*



**Asesoria  
Elicegui, s.a.**  
www.asesoriaelicegui.com

**Ondo pasa Madalenak!**

Nafarroa Etorbidea, 69. Erreteria  
info@asesoriaelicegui.com  
943 51 76 45  722 24 48 91



**HAUREN DANBORRADA**

**Hilaren 22an, 18:00etan, Alabergatik.** Haurren danborrada handi bateratua Madalen Egunean aterako da Alaberga auzotik erdialdera joateko. Ehunka dira parte hartzaileak, beraz, ikusleen kopurua ere handi-handia izaten da.

**DENAK HIBAIKAREKIN!**

**Hilaren 23an, 13:15ean, Oiartzun ibaian.** Hibaika Arraun Elkarteak antolatuta, ETE Ligako zortzigarren estropada jokatuko da herriko errekan. Hibaikako neskak bikain doaz ligan, beraz, festa giroak, haiek animatzeko aukera ezin hobea da.

## HITZA

**DANTZA TXAPELKETAK**

**Hilaren 24an.** Ereintza Dantza Taldearen ekimenez, madalenetan hutsik egiten ez dutenak dantzarien txapelketak dira. Xabier Olaskoaga plazan, 18:00etan gazteen lehia izango da, eta 19:30ean, berriz, helduena.

## Ikerne Zarate

**AZKEN AGURRA**

**Hilaren 25ean, 19:00etan, Herriko Plazan.** Aurten berriz ere kaleak eta plazak berreskuratuko dituzte Maialen eta Xanti erraldoiek, madalenen ikur dira. Azken agurra festen bukaerako egunean egingo dute, urezko zezenaren aurretik.

**GORA MADALENAK!**

**almacenes iztieta s.a.**  
[www.iztieta.com](http://www.iztieta.com)  
[pinturas@iztieta.com](mailto:pinturas@iztieta.com)

**CIFP DON BOSCO LHII**

**DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA**  
 20100 Errenteria  
 Tel.: 943 510 450  
[donbosco@donbosco.eus](mailto:donbosco@donbosco.eus)  
[www.donbosco.eus](http://www.donbosco.eus)

PAPER KALEA, 1  
 20400 Tolosa  
 Tel.: 943 672 900

**Ongi pasa Madalenetan!**



# MadalenaK 2022 Errenteria

UZTAILAK

21

TREMENDA JAURIA

Zumardia 1:00

UZTAILAK

22

OIHAN VEGA

Zumardia 1:00

MODUS OPERANDI

Lino gunea 22:30

UZTAILAK

23

GOXUA'N SALTSA

Zumardia 19:00

GRISES

Lino gunea 02:30

UZTAILAK

24

ESNE BELTZA

Zumardia 00:30

BENGO

Lino gunea 22:00

UZTAILAK

25

BITARTEAN

Xabier Olaskoaga plaza 19:00

UZTAILAK 20

TXISTULARIEN KONTZERTU NAGUSIA

+FERMIN MUGURUZA

ZUMARDIA 20:00



ERRETERIA  
UDALA



madalenaK

KULTURA  
kreaktiboA



# DESKONTU BEREZIAK

## VARILUX®

LENTEETAN



### DONOSTIA

Jose M<sup>a</sup> Sert 4 - ANTIGUO • Tel.: 943 14 28 17  
C/ Nueva 15 - GROS • Tel.: 943 32 66 49

### ERRETERIA

Koldo Mitxelena 7 • Tel.: 943 51 78 11

### IRUN

Mendibil M.G. • Tel.: 943 63 99 01

[www.multiópticas.com](http://www.multiópticas.com)   

**MULTIÓPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen